

## Euskal Kulturaren Pizkundea piztu behar

Paulo AGIRREBALTZATEGI

**M**AIATZAREN 23an mahainguru batetan izateko parada ukan nuen. Gaia: «Oteizaren eragina Euskal Mugimendu kulturean». Oteizari buruzko astealdi baten barruko ekinaldia. Partehartzaileak: Jesús Azcona, Txomin Badiola, Agustin Ibarrola, Juan Mari Lekuona, Xabier Lete; moderatzailea, Joseba Zulaika.

Zalantzarik gabe, oso entzutekoa izan zen mahaingurua eta mahaikide bakoitzaren solasaldia. Entzuleen aldetik ere partehartze interesgarriak egon ziren. Hiru ikuspegi ezberdinetatik aztertu zen gaia: 1. Oteizaren eragina euskal artean eta kulturari (interpretazio gorespenezkoak eta laudoriozkoak denak); 2. Euskal kulturgintzaren eta bereziki artearen «politika» orain (Administrazio autonomiko eta herrialdekoei astindu zorrotza); 3. Kultur mugimendu berria suspertu beharra Euskal Herrian (amets ugari, baina konkretizazio eskasak, asmoak azaltzean eta eskabideak ipintzean).

Bi ordu t'erdi haietan gogoeta askotxo egiteko aukera izan nuen, entzutearekin batera. Neure ohartxoak ere idatzi nituen. Horien gain idatziko ditut lerro hauek.

**K**ULTUR pizkundeak ugari izan dira seguruenik historian zehar; bizirik irauten duten Herri gehienetan gertatu dira noizbait. Funtsean hauxe besterik ez da kultur pizkundea: egokiera historiko aldekoen babesean, Herri edo Kultura batek bizi duen susperraldia adierazpen mota guztietan: literaturan, arte plastikoetan, musikan, gizarte-sistema berrietan, filosofian, ekonomi eta teknologi sistematan. Kultur pizkunde-motak ezberdinak dira noski Herri bakoitzean eta garai bakoitzean.

Kultur pizkundetzat hartu izan den mugimendurik ezagunena Europa mailan *Errenazimendua* deiturikoa da, XV. mendearen erdialdetik aurrera, eta aintzinako klasikoetara nolabait itzuliz, Europa osoan gertatu zena. Garai hartan Ertaroaren gairatzea gisa ulertu zen errenazimendua.

*Euskal Idazleak Gaur* liburua ikusten baldin badugu, Euskal Herriak ere izan du bere kultur pizkundea: XIX. mendearen azkenaldian hasi eta 1936.eko gudaterainoko aldia hartzen duena. Orduko kultur gileek asmatu zuten titulu hori, ez Juan Mari Torrealdairaren libururik.

**O**SO bidezkoa iruditu zitzaidan EHUko Zorroagako Antropologi Departamenduak Oteizaren irudiari eskaintzea horrelako astealdi bat. «Oteiza euskal esteta eta mitogilea» titulu erakargarria eman zion gainera. Kultur antropologiak ez ditu gure Herriaren tradizio zaharrak edo zaharkituak bakarrik aztertu behar, ezta Australiako totem-sinesteak bakarrik ere; gaurko Euskal Herriaren kultur proiektu modernoan lantzen lagundu behar duela uste dut. Horixe adierazten digu Oteizari buruzko astealdiak. Oteiza artista eta esteta euskaldunak merezi izateaz gain, behar-beharrezkoak dira gure Herriaren kultur etorkizunaz horrelako gogoetak eta eztabaidak antolatzea.

Oteizari buruz eta Oteiza dela eta, ha maika puntu harrotu ziren ni izan nintzen mahainguru hartan. Horietaiko batzua aipatu nahi nituzke hemen: 1. Herri honentzat kulturazko proiektu bat eskaintzean, beraren *sustraietara* jo izan du Oteizak bere teoriatan; 2. Diktadurako kultur faxismoaren aurka nahiz gero kultur funtzionarismoaren aurrean, eta beti kulturazko merkantilismoari iheska, jarkiera edo erresistentzia predikatu eta praktikatu ditu Oteizak; 3. Artearen eta kulturaren elitismoaren aurka, horien herritartasuna defenditu ditu etengabe Oteizak, kultura zerbait soziala dela oso gogoan edukiz; 4. Kulturaren globaltasuna, teoriarik; eta horren sail ezberdinen koordinazioa, aribidean: artista plastikoen, kantariak, bertsolariak, poetak, zinegileak, etab.ek denek zuten beren lekua eta beren «protagonismoa» Oteizaren kultur proiektuan.

Nere ustez, Euskal kulturaren basamortuan —ala diktadurak utzitako lur kixkalian?— profetaren misioa hartu zuten Oteizak. —Eta diodanak ez du zerikusirik, mahainguruko batek Oteizaren *Quousque tandem* liburuaraz eman zuen interpretazio erlijiozkoaz—. Profetaren intuizioa eta sugarra zabaldu ditu berak. Seguruenik haren prediku profetikoa gehiago zabaldu da, haren eragin politi-

koa baino. Dena dela, ez dago zalantzarik Oteiza euskal kultur eragile garrantzizkoa izan dela azken hogeitamar urteotan.

Baina euskal kultura diodanean, ez dago ahazterik euskarak ez duela, Oteizaren proiektuan, behar duen funtsezko lekua. Gure hizkuntza nazionalari buruz, zozokeria batzuta aparte, ekarpen teorikorik ia bat ere ez du egin Oteizak, euskal kantariak eta poetak bultzatu baldin baditu ere. Hutsune «handiegia» hori nabarmenegi gelditu zen aipatu dugun mahainguruan ere.

**E**USKAL Herria berreraikitze dago. Horren berreraikuntza, ordea, ez da politikoa eta ekonomikoa bakarrik; soziala eta kulturazkoa izan behar da funtsean. Euskararen berreskurapenean oinarritua.

Uste dudanez, datorren urterako, Gernikaren suntsipena eta horren berreraikuntza demografikoa ospatuko direnako, ideia oso interesgarri bat kaleraturik dago: hau da, Gerniak izan behar du Euskal Herriaren berreraikuntza kulturazkoaren eta hizkuntzazkoaren sinboloa. Horra euskal kultur pizkunde berriaren asmoa kalean!

Seguruenik, kultur pizkundearen mugimendu handirik ez da inolako ospakizun historikotatik sortu edo abiatu. Lurra landua behar du aurretik horrelako mugimenduak. Baina gutxienez lagun dezake Gernikaren 50. urteburuko ospakizun horrek, pizkunde horri buruz jendea jaberazteko, horren baldintzak eta ardatzak aztertuz joateko, horren aurrerabidea markatzeko. Oteizaren hainbat intuizio eta asmo oso baliagarri izan daiteke horretarako.

Edozein kultur pizkundeko mugimenduan gidariak beharrezkoak izaten dira; ez hainbeste, kulturaren funtzionariak. Baina euskal kultur pizkundeak herriarra izan behar du; Oteizak berak irakatsia dugu hori. Horregatik kultur mugimendu horren gidariak Herri honen askapenerako eta berreraikuntzarako mugimendu osoaren barrutik eskaini beharko dute beren eragintza. Artistaren eta kultur gilearen engaiamendu soziala eta gizartearekiko horren hitzeko nahiz egiteko lotura ez dira kultur eragilearen osagarriak edo gehigarriak soilik, kultur gileak kultur eragile bihurtzen dutenak baizik.

Azken hori ere Oteizaren irakatsian ikasia dugula uste dut.